

**Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskaltzaindia:
1999.eko hitzarmena**

Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea den Pello Salaburu Etxeberria jaunak eta Euskaltzainburua den Jean Haritschelhar jaunak, 1999ko ekainaren 16an, Bilbon bildurik, honako hau erabakitzen dute:

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Euskaltzaindiak lankidetzaz *hitzarmena* sinatua dute elkarlana sustatzeko eta bi erakundeetako kideentzat interesgarri izan daitezkeen lanen argitalpenak bultzatzeko. Lan horietarako 8.000.000 ptako dirukopurua jarriko du EHUK eta Euskaltzaindiak jartzen dituen baliabideak beste horrenbestean baloratzen dira. Hau egitea erabaki zuen erakunde bien jarraipen batzordeak bere azkeneko bilkuran, 1999ko ekainaren 2an.

Honako hauek dira dirukopuru honekin bideratzen diren lanak:

1. <i>Hitz Elkarketa - II</i> (argitalpenaren azken prestaketa)	550.000
2. <i>Euskal Gramatika - Lehen Urratsak - V</i>	2.500.000
3. <i>Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental - I</i>	2.700.000
4. <i>Orotariko Euskal Hiztegia - Corpusaren CDROM</i>	2.250.000
	8.000.000 pta.

Agiri hau sinatzen denean ordainduko dizkio EHUK Euskaltzaindiari 4.000.000 pezeta, aipatu kopuruaren erdia eta, beste erdia, aurtengo urtea amaitu baino lehen.

Eta hau sinatzen da Leioan eta Bilbon, 1999ko ekainaren 16an.

Pello Salaburu Etxeberria jauna,
Euskal Herriko Unibertsitatearen errektorea

Jean Haritschelhar jauna,
euskaltzainburua

